

OIARTZUNGO KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA

ZIOEN ADIRAZPENA

Oiartzungo Udalak 1994ean OIARTZUNGO KIROL INSTALAKUNTZAK S.A. (OKISA) udal enpresa eratu zuen kirol instalazioak eraiki eta kudeatzeko.

OKISA izan zen kiroldegia eraiki zuena eta berau izan da 1997az geroztik bere kudeaketaz arduratu dena. Kiroldegia martxan jartzeko oinarrizko araudi bat onartu zuen eta geroztik egin diren instalazio berrietan berauei egokitutako araudi solteak egin izan dira. Geroztik udalak bere esku utzi izan ditu udako igerilekuaren eta Madalensoro pilotalekuaren kudeaketa.

2017ko uztailaren 14an Oiartzungo Udalak OKISA desagitea eta hiru instalazio hauen kudeaketa bereganatzea erabaki du eta une egokia da hiruron araudia eguneratzeko.

ATARIKO TITULUA: ARAUDIAREN XEDEA

Araudi honen xedea Oiartzungo Udaleko kirol instalazioen erabilera arautzea da. Instalazio horietarako sarbidea edozein pertsonak izango du, betiere, araudi honi atxikita erabiltzen baditu, eta dagokion tasa edo prezio publikoak ordaintzen baditu.

Era berean, kirol instalazioen erabilera eta diziiplina araudia ere arautu nahi du.

Oiartzungo Udalak beretzat gordetzen du araudi hau argitzeko, interpretatzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea, eta beroriek eta araudi espezifikokoak (ordutegiak, tasak, etab.) jendearen eskura egongo dira.

Araudi honek arautzen dituen instalazioen erabilerari eta kirol instalazioetan ematen diren zerbitzuei aplikagarri zaizkien tasak edota prezio publikoak Udalbatzak onartuko ditu urtero, dagokion zerga-ordenantza aldarazita.

Oiartzungo Udalak kirol-instalazio hauek ditu bere eskumenen menpe:

1. Elorsoro Udal Kiroldegia.
2. Madalensoro Udal Pilotalekua

3. Udako igerileku irekiak

Araudi hau, orobat, etorkizunean egin edo eralda daitezkeen kirol-instalazioetan aplikatuko da.

I. TITULUA. ERABILTZAILEAK

1. artikulua. Erabiltzaile izaera.

Erabiltzaile izango dira Elorsoro Kiroldegia, Madalensoro Pilotalekua eta Udako igerileku Udal kirol instalazioak erabiltzen dituzten edo kirol-jardueraren edo jarduera fisikoren bat praktikatzan duten pertsonak.

2. artikulua. Erabiltzaile motak.

Bost erabiltzaile mota bereizten dira:

1. Abonatua.
2. Librea.
3. Baimendutako taldekako erabilerak (Eskola kirola, Kirol taldeak, Ikastetxeak, Uda kanpaina)
4. Erabiltzailearen laguntzailea.
5. Jendea, oro har.

3. artikulua. Abonatua.

- a) Abonatu izaera izango du instalazioetara abonatuta egonik ordainketa eguneratuta daukan pertsonak.
- b) Oro har, abonauk hainbat motatakoak izan daitezke (familiakoak norbanakoak...) bakoitzaren onurak, ezaugarriak eta prestazioak dagokien zerga-ordenantzan arautuko dira. Hala dagokionean, prezio publiko horien inguruan Oiartzungo Udaleko organo eskudunak onetsi ditzakeen hobariak aplikatu ahal izango dira.
- c) Instalazioetan sarbidea izateko txartela emango da. Txartelak Ordenantza Fiskaletan jasotako kostea izango du.
- d) Abonu-txartela indarrean egongo da interesadunek espreski baja ematen duen arte edo harpidetza berak nahiz txartelaren egoerak aldatzea eskatzen duen arte.

- e) Txartela norbanakoa eta besterenezina da. Identifikatzeko, Nortasun Agiria edo antzeko agiria eskatu ahal izango du kontrol eta zaintzako pertsonalak.
- f) Abonu-txartelak ondorengo instakuntzak erabiltzeko eskubidea ematen du, baina, betiere, libre badaude eta bakoitzarentzat ezarritako baldintza bereziak betez: igerilekua. Kirol anitzeko pista. Gimnasioa. Frontoitxoa. Giharketa gela. Padela.
- g) Abonu-txartela galduz gero, berehala jakinarazi beharko da kiroldegiko harreraren. Hark txartel berria egingo du, aldez aurretik horretarako ezarritako prezio publikoa ordainduta.
- h) Abonatu izaera eskuratzeko eskaera- orria bete eta ordenantzetan jasotako prezio publikoa ordaindu beharko da Elorsoro Kiroldegiko harrera bulegoan, eskura edo banku txartela bidez. Eskaera orrian, besteak beste, zehaztu beharko dira bazkidetza mota (familiarra/banakakoa) eta ordainketa era (eskura/banketxez). Ondorengo kuotak, hilero, lehen egunetan, helbideratutako kontutik kobratuko dira.
- i) Epe baterako bazkidetza ere egin daiteke horrela jasota badago ordenantzetan.
- j) Abonu mota aldatzerakoan banakakotik familiarena edo alderantziz lehen abonua alta eguna hartuko da kontutan indarraldia neurtzeko eta ez da matrikula berririk ordaindu beharko lehen aldian.
- k) Abonatu izateari utzi nahi dionak hilaren 20a baino lehen adierazi beharko du Elorsoro Kiroldegiko harrera bulegoan. Horrela egiten ez badu, hurrengo hileko kuota kobratuko zaio eta abonatu izaten jarraitu nahi duela ulertuko da.
- l) Baja emateak ez du suposatzen dirurik itzuliko denik.
- m) Abonuaren kuotari dagokion erreziboak itzuliz gero edo abonua ezarritako epean ordaintzen ez badira, abonuari automatikoki baja emango zaio eta ezinbesteko baldintza izango da ordainketetan eguneratzea abonatu izaera berreskuratu nahi bada.
- n) Baja baten ondorengo altetan matrikula ordaindu egin beharko da ordenantzetan jasotako baldintzetan.

4. artikulua. Librea.

Abonatua edo baimendutako taldeetako kide izan gabe, Udalak zehaztutako prezioa ordaindu ondoren, instalazioak erabiltzeko eskubidea duen pertsona izango da.

5. artikulua: Baimendutako taldekako erabilerak (Ikastetxeak, Kirol taldeak, Uda kanpaina)

Udalak espreski baimendutako egutegi eta ordutegietan nahiz kirol federatuetako lehiaketetan parte hartzerako datozenen erabilerak sartzen dira multzo honetan.

5.1. Ikastetxeak

Ikastetxeen ikasgai orduetako kirol saioak eta eskola orduetatik kanpoko eskola kirolerako erabilerak izango dira.

- a) **Eskola orduetan**, nagusiki Oñartzungo ikastetxeen igeriketa eskolak nahiz gorputz hezkuntzako eskolak udal kirol instalazioetan eman ahal izango dira. Urtero, irailean eskatuko dituzte ikastetxeek ikasturte berrirako beharko dituzten instalazioak. Kasu guztietan, irakasle baten ardurapean etorriko dira taldeak eta hau izango da haien gorputz hezkuntzako saioen eta ikasleen portaeraren erantzule.
- b) **Eskola-ordutegitik kanpoko eskola kiroleko** hainbat saio udal kirol instalazioetan eman ahal izango dira. Urtero, irailean eskatuko dituzte ikastetxeek ikasturte berrirako beharko dituzten instalazioak. Kasu guztietan, hezitzaile baten ardurapean etorriko dira taldeak eta hau izango da haien saioen eta partaideen portaeraren erantzule.
- d) Talde bakoitzaren arduradunak, (irakasle/hezitzaile), kasu guztietan, instalaziorako sarrera-irteera taldearekin batera egingo du; bertara sartu aurretik eta irtetean aldagelak ikuskatuko ditu eta azken ikaslea atera arte itxaron beharko du.

5.2. Kirol taldeak.

- a) Kirol taldeak legez eratutako eta lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten baliozko ordezkariak izango dira eta Euskal Herriko Kirol Elkartea eta Federazioen Erroldan eta Udalen Kirol Taldeen Erroldan inskribaturik egon beharko dute.
- b) Egoitza Oñartzuneko duten eta aurreko baldintzak betetzen dituzten klubek Udala instalazioak erabili ahal izango dituzte euren partida, entrenamendu, erakustaldi eta abarretarako, aurrez udalarekin adostutako ordutegi eta egunetan, erreserbarik ordaindu gabe.
- c) Instalazioak erabili ahal izateko, taldeetako kirolariek abonaturik egon beharko dute.
- d) Lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol taldeetako erabiltzaileak, lehiaketa hasi baino 30 minutu lehenago sartu ahal izango dira instalazioetan, eta jarduerak

amaitu eta handik 20 minutura utzi beharko dira, betiere, instalazioen ordutegiaren barruan.

e) Kirol taldeen erabileretan desberdintzen dira:

- **Ohiko entrenamenduak.** Denboraldi baterako entrenamenduetarako erreserba eskaera, aurreko denboraldia amaitu aurretik egin beharko da. Jasotzen diren eskabide kopuruaren arabera, lagapenak antolatuko dira. Denboraldi baterako izango da baimen horren iraupena.
- **Denboraldiko ohiko lehiaketak:** Denboraldi hasieran, talde bakoitzari lehiatzeko egun eta ordua finkatuko zaio. Taldeak, denboraldi hasieran lehiaketa egutegia aurkeztu beharko du. Finkatutako egun eta orduetan lehiaketa antolatu ezina suertatuko balitz, beranduenez aste horretako ostegunerako adostuko da saioaren egun eta ordua.
- **Maiztasun jakineko ez ohiko entrenamendu edo lehiaketa ofizialetarako eskabideak:** gutxienez ere, hamabost egun lehenagotik egingo dira.

- f) Instalazioak erabiltzeko ordutegiaren banaketa Oiertzungo Udalak egingo du klub interesatuen beharrianak entzun ondoren, eta kirol-denboraldi baterako balioa izango dute.
- g) Euren lehiaketa-partidak jokatzeko guneak eta pistak eskatzen dituzten klub federatu guztiek derrigor eman beharko diote Oiertzungo Udalari euren lehiaketa-egutegiaren kopia bat.
- h) Utzitako instalazioa Oiertzungo Udalari jakinarazi gabe hiru egunez erabiltzen ez duten taldeei hura erabiltzeko baimena kenduko zaie (ezinbesteko arrazoiak, eguraldi arazoak, etab. direnean izan ezik).
- i) Instalazio eta dependentzien erabilera baimenak eten ahal izango ditu udalak haren iritziz lehentasuna duten beste erabilera batzuk emateko, betiere bidezkoak badira, eta horretarako, aldeztu aurretik jakinarazpena helaraziko die.
- j) Taldekoen arropak eta poltsak gordetzeko, ematen zaizkien aldagelak erabili ahal izango dituzte klubek, kirol-jarduerak dirauen artean.
- k) Aldeztu aurretik erabiltzeko eskaera eta erreserba eginda, bileretarako, hitzaldietarako, eta abarretarako udalak prestatutako espazioak erabili ahal izango dituzte klubek.

- l) Lehiaketa ofizialak egiteko, kirol erakundeek denboraldiaren egutegia igorri beharko dute idatziz, eta, gutxienez 15 egun lehenago, lehiaketetan egingo diren jarduerak eta ordutegiak adieraziko dira.
- m) Entrenamendu eta lehiaketa ofizialetako ordutegiak kirol-instalazioetako ordutegi orokorreki egokitu beharko zaizkie. Instalazio bakoitzerako onartutako egutegian zehaztutakoak.
- n) Kirol-elkarte eta klubek antolatutako kirol ekitaldien erantzukizun zibila, entrenamendu saioak barne, euren izango da. Horretarako, dagokien erantzukizun zibileko poliza kontratatu behar dute, legeak ezartzen dituen kopuruekin eta denboraldiaren hasieran polizen kopia eman behar diote Oñartzungo Udalari.
- ñ) Instalazioetan lehiaketak eta ikuskizunak antolatzen direnean, ekitaldi publikoen erantzukizuna erakunde antolatzaileena izango da. Horretarako, instalazioaren autobabes planaren Berri izan behar dute eta bertan jasotzen diren ardurak bere gain hartu behar dituzte.
- o) Instalazioak erabiltzean sortutako kalteak edo hausturak erabilera-erreserba egin zuen pertsonak edo erakundeak ordaindu beharko ditu. Lehiaketa ofizialetan, dagokion federazioari eta klubari emango zaie kalteen berri, eta bertako kluba izango da aurkako taldeek sortutako kalteen erantzule subsidiarioa.
- p) Adin txikikoen kasuetan, euren kirol taldeko jarrera ona bermatzeaz arduratu beharko dute entrenatzaileek eta begiraleek, eta haien faltan, guraso edo tutoreek. Horiek izango dira gerta daitezkeen tratatu txar, bullying edo jazarpen kasuen erantzuleak.
- q) Kirol-ekitaldietara sartzeko sarrera kobratzen duten kirol-erakundeek horren berri eman beharko diote aurretik Oñartzungo Udalari. Leihatilak erabili ahal izango dituzte (baleude); bestalde, euren ardurapekoak izango dira bai langile kobratzaileak bai ekitaldia egokiro garatzeko kontrola.

6. artikulua. Erabiltzaileen laguntzaileak.

- a) Premia berezien ondorioz, aldageletan eta kirol instalazioetan euren kabuz bakarrik ibiltzeko arazoak dituzten erabiltzaileen laguntzaileak izango dira.
- b) Era berean, laguntzaileetat hartuko dira kirol ekintzetan izen emanda dauden 8 urtetik beherako adingabeekin aldageletara laguntzera sartzen direnak.

- c) Laguntza eskaintzeaz haratago ez dute izango instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubiderik.
- d) Laguntzailea doan sartu ahal izango da, baina agiri egokiak eskatu ahal izango zaizkio, erabiltzailearen eta laguntzailearen arteko laguntza-harremana egiaztatzeko.
- e) Laguntzaileen sartzeko denbora zehaztu eta mugatuko da protokolo eta barne erabakiz.

7. artikulua. Jendea, oro har.

Instalazioetara, kirol-ikuskizunetara, entrenamenduetara eta lehiaketetara ikusle doazen pertsonak eta bisitariak izango dira.

II. TITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

- a) Kirol-instalazioen erabilerari dagokionez, honako **eskubide** hauek izango dituzte erabiltzaileek:
 - Instalazioei, ordutegiei, prezio publikoei, kirol-jarduerei eta bertara sartzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
 - Elorsoroko langileengandik arreta eta trataera egokia jasotzeko eskubidea.
 - Edozein unetan, instalazioen zerbitzuetako edozein langile edo arduraduni identifikazioa eskatzeko eskubidea, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egiteko.
 - Alokatu edo gorde zituzten kirol-instalazioak erabiltzeko edo izena emanda zuten jardueretan parte hartzeko eskubidea, gordetako ordutegian eta aldian, betiere, hori eragozten duen programatutako beste jarduerarik egiten ari ez badira, Udalak baimendutako kirol-ekitaldirik egiten ari ez badira, edo eguraldia txarraren edo konpondu ezin den matxuraren baten eraginez, ezinezkoa ez bada.
 - Kirol-eskolen jarduerari dagokienez, izena emanda duen eskola jasotzeko eskubidea; betiere, izena emanda dutenen kopurua gutxienekotik gorakoa bada.

- Instalazioak behar den higie, garbitasun eta segurtasunarekin erabiltzeko eskubidea, gordetako kirol-jarduera behar bezala garatuko dela bermatzeko.
- Erabiltzaileari ez dagozkion arrazoiengatik, ordutegiarekin nahasteren bat badago, hartutako ordua atzeratzea –ordurako ezer programaturik ez badago– edo, libre badago, beste instalazio batera bidaltzea aukera dezakete. Abonatuek eta erabiltzaile libreek kontratatutako zerbitzua itzultzea eskatu ahal izango dute, gertaeraren bat jazo edo zerbitzua bertan behera geratu denean (altzarietan edo instalazioetan matxurak). Ez da itzulketarik egingo eguraldiaren edo ezinbesteko arrazoiengatik gertatu denean (greba legala barne).
- Hala behar denean, monitorearen ordezkia edukitzeko eskubidea, salbuespenak salbu.
- Uraren kalitatearen neurketari buruzko datuen berri (ph-a, kloromaila eta tenperatura) edukitzeko eskubidea, jendaurrean egon behar baitute.
- Edozein erreklamazio, zalantza, kexa edo iradokizun udalari idatziz eta askatasun osoz aurkezteko, eta gehienez hogeita hamar eguneko epean erantzuna jasotzeko eskubidea.
- Erreklamazio liburuan jasotako eredu jarraituz erreklamazioa jarri ahal izateko agiria eskuratzeko eskubidea.
- Indarrean dagoen legeari jarraiki, datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermatuta edukitzeko eskubidea.
- Arreta euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko eskubidea.

9. artikulua. Eranbiltzaileen betebeharrak.

a) Kirol-instalazioen erabiltzaile guztiek honako **betebehar** hauek dituzte:

- Instalazioak eta zerbitzuak araudi honetan zehaztutakoari eta araudia garatzen duten xedapenei (instalazio bakoitzaren araudi espezifiko, etab.) eta udal zerbitzuko langileen jarraibideei lotuta erabiltzea.
- Instalazioko beste erabiltzaileak, jendea eta langileak errespetuz tratatzea, langileen lana erraztea, instalazioetan zuzen jokatzeko eta kirol-materiala zaintzea; instalazioak garbi eta egoera onean mantentzen lagunduz.
- Nork bere burua identifikatzea, Elorsoroko langileren batek eskatzen dionean.

- Jarduera bakoitzari dagozkion kirol-jantziak eta kirol oinetako egokiak erabiltzea (kanpoan erabiltzen dena eta barruan erabiltzen dena bereiziz).
- Instalazioen funtzionamendurako ordutegiak errespetatzea, eta Elorsoroko langileei jarraibideei kasu egitea beti.
- Arduragabekeriaz edo atzipez edozein kalte eraginez gero, instalazioei edo beste erabiltzaileei eragindako kaltea ordaintzea.
- Helbidea, telefono-zenbakia eta bankuko datuak aldatzean edo erabiltzaile izaera utzi behar denean, horren berri kiroldegian ematea, araudi honetan ezarritako bideak erabiliz.
- Kuotaren ordainketa errespetatzea eta betetzea.
- Instalazioak egoki eta arduraz erabiltzeko betebeharra. Erabiltzaileak instalazioen xederako erabili behar ditu instalazio horiek, beste edozein erabilera egiteko, aurretik udalaren baimena jaso behar da.
- Instalazioetako enplegatuei funtzionamenduaren akats, haustura, bestelako akats edo Araudi honetan xedatutako ez betetzearen berri ematea.
- Beste erabiltzaile batzuen lehentasunezko eskubideak errespetatzea, bereziki, erreserba orduetan.
- Instalazio guzti-guztien betebehar komunak betetzea.

10. artikulua. Debekaturik dauden ekintzak.

- a) Instalazioen barruan erretzea eta jatea, horretarako adierazita dauden tokietan izan ezik.
- b) Aldalekuetatik kanpo janzea edo erantztea.
- c) Sexu bateko pertsonak beste sexuarentzat gordeta dauden espazioetan sartzea, 7 urtetik beherako umeak izan ezik, nagusi batek lagunduta sar daitezke.
- d) Instalazioetan edari alkoholdunak saltzea edo edatea.
- e) Instalazioetan kristalezko objektuak edo animaliak sartzea.

- f) Pipak, txikleak, gozokiak edo bestelako produktuak jatea.
- f) Patin edo patinetek instalazioetan ibiltzea
- g) Animaliekin sartzea, txakur-laguntzaileak (perros guía) izan ezik.

III. TITULUA. PREZIO PUBLIKOEN KOBRAKETA ETA ITZULKETA

11. artikulua.

- a) **Prezioak kobratzea:** Udal ordenantzetan jasotako prezioak kirol instalazioetako enpresa kudeatzaileak kobratuko ditu.
 - Abonuak eta ikastaroetako kuotak motaren arabera eta abonuaren indarraldia, ikastaroa edo jarduera hasi baino lehen ordainduko dira.
 - Ordainketa helbideratze edo eskutan ordainduz egingo da.
 - Adingabeak diren erabiltzaileen kasuan, prezioak gurasoek edo legezko tutoreek ordaindu beharko dituzte.
 - Jarduerak isilbidezko adostasunez berrituko dira, ikasturte osoan zehar, hilaren 20a baino lehen, Elorsoro kiroldegiko bulegoetan jakinarazten ez badute, behintzat. Urteko abonauk, berriz, abenduaren 31a baino lehen baliogabetzen ez badira, isilbidez berrituko dira.
 - Lehiaketa federatuak ez direnean, instalazioak erabili nahi dituzten taldeek dagokien prezio publikoa kobratuko zaie.
- b) **Itzulketek** dagokienez, kobratutako zenbatekoak edo ordaintzeko daudenak kasu hauetan itzuliko edo ezeztatuko dira:
 - Udalari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez denean.

IV. TITULUA INSTALAZIOAK ERRESERBATZEA ETA IKASTAROETAN IZENA EMATEA

12. artikulua. Erreserbak.

- a) Lehentasuna izango dute Udalarekin lagapen hitzarmena duten taldeen ordutegi eskaerek.
- b) Alokatu daitezkeen instalazioak hauek dira:
 - Elorsoro: kirol-pista, squasha pista, frontoi txikia eta padel pistak
 - Madalensoro: frontoia
- c) Erreserba kontutan izan dadin, gutxienez 48 ordu lehenago ordaindu beharko da. Ordurako ordaindu gabe badago, anulatuta izango da eta beste erabiltzaile bati eskain daikioke.
- d) Erreserba ordainduak anulatu ahal izateko, erabiltzaileak espreski adierazi beharko du gutxienez 48 ordu lehenago.
- e) Inoiz, gimnasia aretoren bat eta tatami gelaren bat erreserbatu ahalko da kirol jarduera gidatua antolatzeke, une horretan instalazioa kudeatzen duen enpresak onartzen badu.
- f) Udalak, behin udalerriko ikastetxeekin eta kirol-entitateekin instalazioak erabiltzeko ordutegiak adostutakoan, libre geratu diren orduetan erreserbatu ahal izango dira.
- g) Instalazioen erreserbak Elorsoro Kiroldegiko harrera bulegoan egingo dira.
- h) Udalak, beharrezkoa gertatzen bada, instalazioak erreserbatzeko zozketa egin dezake. Zozketan parte hartzeko eskaerak horretarako jarritako eguna eta ordua baino lehen egin beharko dira.
- i) Zozketa bidez erreserbatzen ez diren instalazioetako orduak zuzenean izena emanda alokatu ahalko dira.
- j) Erreserben ordainketa edozein banketxetan domiziliatu eta hilero luzatutako errezioboaren bitartez egingo da.
- k) Justifikatutako kasuengatik denean, udalak inoizka erreserba eten ahalko du; horrelakoetan, erabiltzaileei itzuli egingo zaie ordaindutako zenbatekoa.

13. artikulua. Kirolekoak ez diren ekintzetarako erreserbak.

a) Ikuskizun publikoei buruzko araudiaren mende dagoen jardueraren bat antolatzeko Udalak kudeatzen dituen instalazioak erreserbatu nahi izanez gero, honako arau hauek bete beharko dira:

1. Esakera, horretarako prestatutako ereduan Udalean aurkeztuko da eta bertan, eskatzailearen datuez gain, jarduerari buruzko datu garrantzitsuenak ere adierazi beharko dira, hala nola nork parte hartuko duen, zenbatsu iraungo duen, argindar beharrak, azpiegiturak...
2. Eskabidea gutxienez hilabete lehenago egin beharko da.
3. Eskaerari baiezkota ematen bazaio, jarduerako eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago, eskaeragileak ondoko hauek egin beharko ditu:
 - Dagokion instalazioaren zesioko kontratua sinatu.
 - Eskatutako instalazioaren ardura duen pertsonarekin bilera tekniko bat egin.
 - Dagokion prezio publikoa ordaindu, hala dagokionean.
 - Ebentuen ondoriozko erantzukizun zibila bere gain hartuko duen aseguru-poliza bat aurkeztu, kasu bakoitzean ezartzen den kopurukoa.
 - Udalak ezartzen duen bermea depositatu, instalazioak ondo zainduko direla ziurtatzeko. Udalaren instalazioak erabiltzeko baimena duten pertsona edo entitateek ikuskizunen arloan aginduzkoak diren baimenak lortu beharko dituzte. Baimena badutela egiaztatzeko, horren kopia entregatu beharko dute
 - Horrez gain, jardueraren beraren emergentziako planaren kopia ere entregatu beharko da edo ezarrita dagoen autobabes planari atxikitzen direla eta hori bete ahal izateko pertsonak izendatuak dituztela dioten agiria bete beharko da.
 - Anbulantziaren presentzia edo behin behineko enfermeria bat antolatuko denaren ziurtagiria.
4. Erabiltzeko zesia kontratatutako jarduera egiteko izango da; zesioaren barruan sartzen da, beraz, lehenago edo geroago proba saioetarako edo muntalanetarako erabiltzea, eta hori guztia Udalarekin partikularki hitzartuko da.
5. Instalazioak erabilitakoan, hasieran zeuden bezalaxe utzi beharko dira.
6. Udalaren instalazioetan ikuskizun publikoak antolatzeko baimena duten pertsona edo entitateek honako betebeharrak izango dituzte:

- Esparruan dauden iragarkiak errespetatzea.
- Ikuskizuna antolatzeak dakartzan gastuak bere gain hartzea.
- Sarbideak kontrolatzeko eta ikus-entzuleak kokatzeko behar den pertsonala izendatzea.
- Era guztietako oztopoetatik libre mantentzea segurtasuneko zona eta larrialdietako irteerak.
- Esparrua eta kanpoaldeko segurtasuneko eremua inolako saltokirik gabe mantentzea.
- Jendea esparrura sartzeko ateak dena delako jarduera hasi baino gutxienez ordu erdi lehenago irekitzea.

14. artikulua. Kirol ekintzak edo kirol kanpainak.

- a) Kirol-jarduera sustatzeko, kiroleko ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu urtero Udalak, eta haien eskaintza herritar guztiei zuzendurikoa izango da.
- b) Erabiltzaileen gogobetetasuna lortzea eta kirola ahalik eta gehien hedatzea da ikastaro eta kanpaina horien funtsezko helburua.
- c) Kirol-jardueren programazioa ahalik eta modu efikazenean hedatuko du Udalaren Kirol Zerbitzuak.
- d) Oro har, ikastaroak urte osoan izango dira, eta ahal den heinean, eskaeraren arabekoak.
- e) Ikastaroak eta kanpainak ezarritako Prezio publikoei buruzko Ordenantzari atxikita egongo dira.
- f) Ikastaroetan, kanpainetan eta lehiaketetan parte hartzeko, gehieneko eta gutxieneko pertsona kopurua eskatuko da. Ezarritako gutxieneko kopurua gainditzen ez bada, ez dira egingo; eta gehienekoa gainditzen bada, itxarote-zerrenda egingo da, hartara, izen- emateko ordenari jarraituko zaio doi-doi plazak betetzeko.
- g) Plaza hutsak baldin badaude, edozein unetan izena eman ahal izango da. Dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da. Baten batek baja eman nahi badu, Elorsoroko bulegoetan jakinarazi beharko du, baja izan nahi duen ikastaroa hasi baino lehen. Horrela egin ezean, dagokion prezio publikoa kobratuko zaio.
- h) Prezio Publikoa ez ordaintzeak, jardueran berehala baja ematea ekarriko du, eta beste jardueraren batean izena ematen badu, zorretan duen zenbatekoa ordaindu beharko du, aldez aurretik.

- i) Udal Kirol Zerbitzuak, arrazoi justifikaturen bat badago, kirol-jarduera bat aldi baterako edo betiko eten dezake. Horrelakorik gertatuz gero, itzuli egingo du ordaindutako kopuruetatik emango ez den aldiari dagokion zenbatekoa.
- j) Kirol-jarduerarako gai dela ziurtatzea izena ematen duenaren erantzunkizuna da. Horretarako Udalak mediku-azterketa egitea gomendatzen du eta, arriskurik antzeman ez gero, erabiltzailerari eska diezaioke hori kirol-jarduerari ekin aurretik.
- k) Oñartzungo ikastetxeek, instalazioen ordutegiaren barruan sartzen zaizkien eta Udalarekin adostutako eskola-orduetan, prezio publikorik ordaindu gabe eta ezartzen diren kondizioetan erabili ahalko dituzte Udalak kudeatzen dituen instalazioak.
- l) Ikasle-taldeek, instalazioetara sartuko badira eta haiek erabiliko badituzte, ikastetxeak izendatutako arduradun batek lagundurik joan beharko dute.
- m) Eskola-kiroleko jarduerak Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko aukera izango dute, horretarako zehazten diren baldintzetan.
- n) Eskola-umeen lehiaketak direnean, antolatzaileek idatziz aurkeztu beharko dute egingo dituzten jardueren egutegia, behar adinako denborarekin.

V. TITULUA. KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

15. artikulua. Instalazioak erabiltzeko eskubidea.

- a) Instalazioak erabiltzeko eskubidea dute: helburuen artean gorputz-hezkuntza eta kirola bultzatzea duten eta Oñartzungo Udalak urtero ontzat ematen dituen prezio publikoa ordaintzen dituzten pertsona, kirol elkarte, talde, ikastetxe guztiek eta bestelako entitateek.
- b) Noizean behin eta gauza zehatzetarako, kultura eta gizarte izaera duten jarduerak burutzeko ere erabili ahal izango dira instalazioak, baldin eta kasu bakoitzerako dauden baldintzak betetzen badira eta baimenik badute.

16. artikulua. Instalazioetara sartzea.

- a) Instalazioetara sartzeko, Oñartzungo udal kirol zerbitzuak emandako txartel pertsonala (edo etorkizunean ezar daitekeen teknologia eskatzen duena) erabili

behar da oro har (abonatua nahiz erabiltzailea izan), edo bestela, sarreran dagokion prezioa ordaindu izanaren tiketa.

- b) Ez dira Oiartzungo Udalaren erantzukizunpekoak takiletan edo aldageletan utzitako gauzak; Oiartzungo Udalak ez du gauzen gordailatzerik egiten.
- c) Pertsona edo ondasunei eragindako edozein kalteren erantzukizuna, kaltea eragin duen pertsona edo erakundearena izango da soilik.
- d) Oiartzungo Udalak badu instalazioen Erantzukizun Zibileko poliza, eta poliza horrek udal kirol instalazio horietan kirola egiterakoan instalazioek eragin ditzakeen kalteak hartzen ditu barnean; betiere kausa-efektu erlazioz baldin badago.
- e) Kirol-instalazioak erabiltzeko, beti jantzi beharko dira kirola egiteko arropa eta oinetako espezifikak (ez kalekoak), haietako bakoitzaren espezifikotasuna errespetatuz. Kirolerako ez den arropa jantzita ibiltzeko, baimen berezia beharko da.
- f) Ezin da instalazioetan jan eta ezin da bertara kristalezko objekturik sartu, horretarako adierazitako gunean izan ezik. Abenduaren 26ko 28/2005 Legeari atxikita, instalazioetan ezin da erre.
- g) Ezin dira animaliak sartu, Legeak gidatxakurren gainean xedatzen duen kasuetan izan ezik.
- h) Jantzi eta erantzi talde edo jarduera bakoitzari emandako aldageletan egin behar da.
- i) Instalazioetan edo haren perimetroan publizitatea edo kartelak ipini nahi dituzten kirol-elkarte edo klubek Oiartzungo Udalaren baimena behar dute, eta espazioak proportzionaltasun-irizpideen arabera banatuko ahalko dira.
- j) Oro har, instalazioen barruan ezin dira pertsonak, instalazioak edo jarduerak filmatu, grabatu edo haien argazkirik egin Oiartzungo Udalaren baimenik gabe.
- k) Bereziki debekatuta dago:
 - Kirol-ikuskizunetan, indarkeria sustatzen duten pankartak, ikurrak, enblema edo esaldiak erakustea.
 - Kirol-ikuskizunak egiten ari diren instalazioetan edozein arma mota (agintaritzaren agenteek euren zeregina betetzeko –jardunean badago– eta bizkartzainek euren zeregina betetzeko – betiere jardunean badaude– daramatzatenak izan ezik), edo jaurtitzeko objekturik sartzea.

- Edari alkoholodunak sartzea eta saltzea.
 - Bengalak edo artifiziozko suak sartzea.
 - Mozkor egoeran edo drogak hartuta instalakuntzak erabiltzea.
 - Patin edo patinetez instalazioetan ibiltzea, horretarako markatutako eremuak salbu.
- l) Objektu galduak (arropa, zapatilak, bainujantziak, etab.) horretarako egokitutako eremuan lagako dira hilabetez. Baliozko objektuak, berriz, (bitxiak erlojuak, giltzak, etab.) kiroldegiko harrerara eramango dira.
- m) Udalak, instalazioetako arduradunen eta langileen bidez, ahalmena dauka pertsonak instalazioetatik kanporatzeko, baldin eta araudi honetako arauak hausten badituzte.
- n) Erabiltzaileak instalazioetan edota zerbitzuetan sartzeak araudi honetako arauak onartzea dakar.
- ñ) Udalak zehaztuko du zein egunetan eta zein ordutan ireki eta itxiko diren instalazioak.
- o) Udalak zerbitzuak bertan behera uzteko ahalmena izango du, honako kasu hauetan:
- Instalazioak kaltetzeko arriskua dagoenean.
 - Erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan dagoenean.
 - Ingurumeneko eta instalazioetako baldintzak kaltegarriak direnean.
 - Interes kolektiboak edo aurretik hartutako konpromisoak daudenean.
 - Udalak hala egitea eskatzen duten beste arrazoi batzuk daudela ikustean
- p) Debekatua dago baloiekin, pilotekin edota beste edozer gauzarekin jolastea aldageletan, korridoreetan, harmailetan eta kirola egiteko ez den beste edozein lekutan.
- q) Erabilia izateko ordutegia finkatua duen kirol-eremua utzi egin beharko da behin ordua bete denean, horretarako baimen espresik izan ezean. Erabileraren amaiera instalazioaren itxierarekin batera gertatzen denean, ixteko ordua baino gutxienez 15 minutu lehenago bukatuko da saioa.
- r) Instalazioetan lehiaketak eta ikuskizunak egiten diren bitartean haietara joandako publikoak egin dezakeenaren erantzukizuna entitate antolatzaileen gain geratuko da.
- s) Doloagatik, arduragabekeriagatik edo erabilera txarragatik instalazioetan gertatzen den edozein narriadura edo haustura instalazioak erabiltzeko erreserba egin duen pertsonaren edo entitatearen kontura joango da. Kalte horiek lehiaketa ofizialetan

gertatzen badira, dagozkien federazioari eta klubari jakinaraziko zaizkie, eta entitate antolatzailea izango da egindako kalteen erantzulea.

- t) Kirol-instalazioen erabiltzaileek aldageletako armairuetan gordeko dituzte beren gauzak kirola egiten ari diren bitartean. Behin kirol-jarduera amaitutakoan, armairuak libre geratu beharko du.
- u) Aldageletatik kanpo janzea edo erantztea, sexu bateko pertsonak beste sexukoentzat eskusiboki erreserbatutako guneetara sartzea (8 urtetik aurrera) eta osasuneko, gizalegeko, higieneko eta garbitasuneko arauen kontra eta intimitatearen kontra doan beste edozein jokabide.
- v) Azkeneko urtean arau-hauste larri edo oso larria egin duelako zigortuta egon direnei eta euren portaerarekin zerbitzuak eta instalazioak desegoki erabiltzea eragin dutenei – Zuzendaritza Batzordeari eta begiraleei hala adierazi zaienean– ez zaie instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen utziko.

17. artikulua. Ikastaro/jardueretako lehentasun ordena.

- a) Tokia ziurtatuta izango du baldin eta jarduera hasi baino lehenago izena emanaz gero.
- b) Lehendabizi tokia dute abonatuak, bigarrenaz, ordutegian izena eman dutenek eta hirugarrenaz, jarduera berean baina beste ordutegi batetan izena eman dutenek.
- c) Probatzera datozenek ez dute lehentasunik izango.

18. artikulua. Aldagelak.

- a) Hamasei urtetik beherakoek osatutako talde antolatuak eurekin datozen baimenduriko pertsona helduekin sartuko dira aldageletan (irakaslea, entrenatzailea edo begiralea).
- b) Kiroldegiko edozein eremura joan aurretik beharrezkoa da aldageletatik pasa eta arropa eta oinetakoak aldatzea.
- c) Igerilekura joan behar duten guztiek, nahiz eta aurretik edo ondoren beste kirol motaren bat egin, ezker aldera dauden aldagelak erabili behar dituzte. Bigarren solairuko eremuetara bakarrik joan nahi dutenek, eskuineko aldagelak erabiliko dituzte.

- d) Aldagelatik igerilekura joan ahal izateko (igeri egitera ala adintxikikoei laguntzera) txankletak erabiliko dira. Bestela, kanpoko oinetakoak estaltzeko igerilekurako egokiak diren plastikozko patukoak jartzea beharrezkoa izango da.
- e) Erabiltzaileek arropaz aldatu eta garbitzeko behar-beharrezko denbora emango dute bertan, eta ezin izango da hogeit hamar minutu baino gehiago izan.
- f) Dutzetan, uraren erabilera arrazionala eskatzen da.
- g) Zaborrontziak derrigor eta zaborra sailkatuz erabili behar dira.
- h) Aldageletan ezin da erre, jan eta kristalezko objektuekin sartu.
- i) Aldageletan ezin da oinetako lohietuekin sartu.
- j) Ezin da arroparik utzi aldageletan tokia hartzeko, horretarako, takilak daude.
- k) Aldageletan ezin dira kirol-jantziak garbitu.
- l) Ezin da depilatu, azazkalak edo bizarra moztu, ilea tindatu edo higiepertsonalerako ekintzarik burutu.
- m) Takilak erabiltzailea instalazioan dagoen bitartean erabil daitezke. Egunaren amaieran itxitaiko takilak hustu egingo dira eta barneko objektuei, objektu galduen trataera emango zaie. Ekintza errepikatzen bada Udalak neurriak hartu ahal izango ditu VII. titulua jarraituz.
- n) Portaera bandalikoek edo araudi hau urratzeak dagokien zigorra eragingo dute, eta zigorra banako erantzuleari nahiz taldeari ezarriko zaio. Horrez gain, eragindako kalteen ondorioz sortutako gastuak ere ordaindu beharko dituzte.
- o) Gizalegez jokatzeko eta ahotsaren bolumena zaintzea eskatzen da.

VI. TITULUA. INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. KAPITULUA: ELORSOROKO INSTALAZIOAK

19. artikulua. Igerileku estaliak.

- a) Instalazio hau erabiltzearen xedea erabiltzaileek ariketa fisikoa egitea eta atsegin hartzea da, baia halaber igeri egiten ikastea edo dakitena hobetzea. Era berean,

elkarteek eta kirol-klubek ere erabiliko dute, beren jarduera espezifikokoak garatzeko.

- b) Udalak ez du erantzukizunik hartzen erabiltzaileek igeri egiten ez dakitelako edo beharrezko zuhurtziaz jokatzeko ez dutelako igerilekuetan istripurik badute. Horregatik, debekatuta dago 8 urtez beherakoak instalazioetan sartzea haren arduradun izango den adin nagusikoren batek laguntzen ez baditu (salbuespen dira, Udalak berak antolatutako programak eta igeriketa ikastaro nahiz entrenamenduak).
- c) Udalak igerilekuko kaleen banaketa programatuko du, eta leku ikusgarrian ipiniko du, bertan egingo diren jarduerak errespetatuz: bainu askea, ikastaro eta jarduerak eta klubaren programak.
- d) Igotzeko elementuak egongo dira, urritasun fisikoren bat duten pertsonen igerileku klimatizatuak erabili ahal izan ditzaten. Ahal dela, ekipamenduko edo eraikuntzako edozein elementu kenduko da, pertsona horiei instalazioetara sartzea eragozten edo oztopatzen badie.
- e) Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuak –Euskadiko talde-erabilerarako igerilekuen araudi higieniko-sanitarioari buruzkoak– xedatzen duena betetzeko, erabilera-araudi orokor hau zehaztu da:
 - Igerileku eremura sartu ahal izateko ezinbestekoa da bainujantzia eta oinetako egokiekin sartzea.
 - Igerilekua jendearentzat zabalik dagoen orduetan, sorosle titulatu bat egongo da bertan.
 - Igerilekuan gehienegon egongo den jende kopurua indarrean dagoen legediak zehazten duena izango da, eta espazio horretan bertan jarriko da ikusgai.
 - Igerileku-ontzietan sartu baino lehen dutxa hartu behar da derrigor.
 - Uretako txanoa erabili behar da derrigor.
 - Erabat debekatuta daukate erabiltzaileek bainu-gunera kaleko arroparekin eta oinetakoekin sartzea. Instalazioko zerbitzuak langileek, bertan egon behar dutenean, kaleko oinetakoetarako estalki plastikoekin sartuko dira.
 - Soroslea da igerilekuko arduraduna; beraz, une oro, errespetua zor zaio. Era berean, megafoniaz egiten diren oharak, instalazioa ixteko orduak, igeriketa-

norantza eta udal zerbitzuak onetsitako kale-banaketa ere errespetatu behar dira.

- Erabat debekatuta dago harreman zuzen edo zeharkakoaren bidez, uraren bidez edota elementu pasiboen bidez (kortxo bereizleak edo igeriketa-oholak) erraz kutsatzen diren gaixotasunak dituzten pertsonak bainu-gunean sartzea.
- Ezin da igerileku-zabaltzetatik korrika egin, gainerako erabiltzaileentzako arriskutsu edo desatsegin diren jolasetan jardun, kortxeretan eseri edo ebatu, eta irteerako plataformetatik salto egin.
- Kirola egiteko materialen bat nahi duten pertsonak sorosleari eskatu beharko diote, eta, erabiltzen amaitu bezain laster, itzuli egin beharko dute eta bere lekuan utzi. Hegatsak eta palak (norberarenak) kale berean soroslearen baimenarekin soilik erabili ahalko dira.
- Debekatuta dago instalazioan hondakinak uztea; horretarako, paperontziak eta bestelako ontziak erabili behar dira.
- Ezin da buruz salto egin.

f) Gehieneko edukiera:

- Ontzi txikian: 28 pertsona.
- Ontzi handian: 100 pertsona.
- Instalazio osoan: 375 pertsona.

20. artikulua. Eremu termoludikoa.

- a) Eremu termoludikora sartzeko, alde zuzenetik sarreran dagokion ordainketa egin beharko da eta bonua edo eguneko sarrera izan beharko da.
- b) Eremu termoludikoko zerbitzua 16 urtetik gorako erabiltzaileentzat da. 8 urtetik gorakoek ezingo dute erabili, pertsona heldu baten ardurapean eta onartutako ordutegian ez bada. Pertsona heldu bakarrarekin gehienek 4 adin txikiko sartu ahal izango dira
- c) 8 urtetik beherakoek (edo erabakitzen den baldintzaren arabera) ezingo dute erabili.
- d) Ordutegi aldetik ahalbide mugatua dutenez gero, orduen txandak ezar daitezke.

- e) Nahitaezkotzat ezartzen da dutxa hartzea: eremuan sartu baino lehen, igerilekutik saunara, lurrun bainura edo termara sartzerakoan, saunatik igerilekura joaterakoan, termatik saunara edo lurrun bainura, lurrun bainutik termara edo saunara, eta saunatik lurrun bainura edo termara pasatzerakoan.
- f) Saunan sartzeko nahitaezkoa da toaila erabiltzea han barruan gainean esertzeko edo etzateko.
- g) Debekatua dago saunara kaleko jantziekin eta edozein eratako oinetakoekin sartzea.
- h) Gorputzetik metalezko gauza guztiak kendu behar dira: belarritakoak, eskumuturrekoak, eraztunak, lepokoak .
- i) Gorputzeko higieనేarekin zerikusi estua duen zerbitzua izanik, hori zaintzeko hartu behar diren neurri guztiak zorrotz hartzea gomendatzen da.
- j) Jokabide zuzena zaindu behar da, beste erabiltzaileei ez eragozteko. Debekatuta dago telefono mobilak erabiltzea.
- k) Gorputzaren tratamenduko barrutian, debekatua dago bizarra moztea, jatea, ura ez den beste edozer edatea, erradiadoreetan lozioak botatzea eta ilea tindatzea.
- l) Aldian behin, obrak, mantentze edo garbiketa bereziak egiteko, eremua itxi daiteke. Aldez aurretik emango zaie erabiltzaileei horren berri.

21. artikulua. Erabilera anitzeko gelak.

- a) Jarduera horretan aldez aurretik izena emanda daudenak baino ezin izango dira sartu aretoetan, eta indarrean dauden Tasa eta Prezioen Ordenantzan xedatutakoa bete beharko dute.
- b) Kiroletako oinetakoekin eta jantziekin sartu ahal izango da; oinetakoak gomazko zorua eduki beharko dute. Tatami geletan oinutsik ibili behar da.
- c) Bereziki Udalak antolatutako ikastaroetarako erabiliko dute; hori dela eta, haren erabilera ikastaroen eta gainerako jardueren beharren arabera izango da.
- d) Alokatzeko garaian, bertan antolatutako ikastaro, ikastetxe eta federatutako ekipoen lehentasuna izango dute.
- e) Egun eta ordu zehatzetan erabili ahal izateko alokairua ordaindu beharko da.

- f) Ordaindu gabeko erreserben erabilera egiteko eskubidea gordetzen da.
- g) Gimnasioak erabiltzeko eskubidea gordetzen du Udalak, edozein jarduera egin behar duenean, baina beti jakinaraziko du itxi egin behar dituela, behar hainbateko aurretiaz.
- h) Saio bakoitza bukatu ondoren, erabilitako materiala bere lekuan utzi beharko da.

22. artikulua. Fitness gelak.

- a) Kirol-oinetako eta kirol-arropaz baino ezin izango da sartu gimnasioetara, eta ezin izango da erabili gomazko zolarik ez duen oinetakorik.
- i) 16 urtetik beherakoak ezin izango dira bertara sartu. Eraikineko edozein langilek eskatu ahal izango du adina ziurtatzeko edozein agiri. Hala ere, zuzendaritzaren baimen berezia dutenek erabili ahalko dute areto hori.
- j) Materiala eta ekipamendua:
 - Erabilitakoan, dagokion tokian utzi beharko dira, batez ere, pisuak.
 - Ezingo dira bizikleta eta beste ekipamenduak tokiz aldatu, langileen baimenik gabe.
 - Gimnasioetako materiala eta ekipamendua behar den bezala erabili ezean, sortutako kalteak ordaintzeko zigorra jarriko da.
- d) Dagoenean, aretoko langile teknikoak aholkua emango du, eta banan-banako programak diseinatuko ditu hala eskatzen duten pertsonen, horretarako, zehaztu diren ordutegietan.
- e) Makinak erabiltzeko toalla erabili behar da.
- f) Erabiltzaile guztiek makinak erabiltzeko aukera izan dezaten, norbait zain izanez gero, makina kardiobaskularrak erabiltzeko gehienezko denbora, orotara, 30 minutukoa izango da.
- g) Debekatuta dago fitnessseko aretora janaria eramatea edo beirazko gauzak sartzea, eta aldageletako armairuetan utzi behar dira poltsak, motxilak, arropa, oinetakoak.

23. artikulua. Kiroletako pistak.

- a) Instalaziora sartzeko, ezinbestekoa da kiroletako jantzi eta oinetakoak eramatea, bai eta entrenatzaileek eta klubetako gainerakoek ere.
- b) Kiroletako oinetakoen zolak zuria edo tonu argikoa izan behar du, jolas-gunean markarik ez uzteko.
- c) Kontroleko langileek adieraziko dute zein aldagela erabiliko den. Taldeen kasuan, taldeentzako aldagelak erabiliko dituzte.
- d) Debekatua dago espazio horiekin zerikusirik ez duten beste kirol-modalitate batzuetako tresnekin jokatzea, non eta zuzendaritzak baimendutakoak ez diren.
- e) Kirol-espazio horietako berezko kirol-jarduerak sustatzen dituzten kirol-entitateek lehentasuna izango dute horien erabileran. Behin entitateen ordutegiak finkatutakoan, libre geratzen diren orduak edozein erabiltzailek erreserbatu ahalko ditu.

24. artikulua. Padeleko pistak.

- a) Pista hauetan honako jarduera hauek egingo dira: Udalak antolatutako ikastaroak, kanpainak eta lehiaketak, bertako klubetako lehiaketak eta edozein erabiltzailearen banakako jarduerak.
- b) Taldekideren batek edo gehiagok 12 urte baino gutxiago baditu, gutxienez heldu batek jokatu beharko du taldean.
- c) Instalazio horiek araudi honetan eta Prezioen Ordenantzan zehaztutakoaren arabera erabili ahal izango dira.
- d) Ezingo da erreserbatutakoa baino denbora gehiago egon, aldez aurretik prezioa ordaindu gabe.
- e) Eguraldiagatik erabil ezin izateak ez du suposatzen erreserba dirurik itzuliko denik.
- f) Erabiltzaileek pistako giltza atezaintzan jaso beharko dute, eta leku berera bueltatu beharko dute behin jarduera amaitutakoan.
- g) Erabili aurretik taldeko jokalariei guztien izen-abizenak jakinarazi behar dira kontrolean.

h) Derrigorrezkoa da kiroleko arropa eta oinetakoak erabiltzea.

i) Padel jokorako egokiak diren pala eta pilotak erabili behar dira.

25. artikulua. Frontoi txikia

a) Derrigorrezkoa da kiroleko arropa eta oinetakoak erabiltzea.

b) Instalaziorako egokiak diren pilota eta erraketak erabili behar dira.

c) Egun eta ordu zehatzetan erabili ahal izateko alokairua ordaindu beharko da.

26. artikulua. Rokodromoa. Ikus I. eranskina

2. KAPITULUA. MADALENSORO PILOTALEKUAREN INSTALAZIOAK

27. artikulua. Taldeen eta ikastetxeen Madalensoro instalazioen erabilera.

a) Oñartzungo kirol taldeek eta ikastetxeek horiek erabiltzen dituztenez, lagapen hitzarmenak egingo dituzte Udalarekin.

b) Bulego eremua:

Era berean, Udalak erabaki eta lagapen hitzarmen bidez onartuko ditu:

- Eremu bakoitzaren banaketa.
- Eremu bakoitzaren erabilera arautegia.
- Eremu hauen kudeaketan parte-hartzeko irizpideak.

c) Gainontzean, erabiltzeko aurrez erreserbatu beharko dira.

3. KAPITULUA. ESTALI GABEKO UDAKO IGERILEKUAREN INSTALAZIOAK

28. artikulua. Estali gabeko igerilekuak.

a) Instalazio hau noiz zabaldu Udaleko Kirol Zerbitzuak erabakiko du, eta behar den bezala jakinaraziko ditu egunak eta ordutegiak.

- b) Eguraldi txarrak ez du sarreraren dirua itzultzeko eskubiderik emango.
- c) Kirol instalazioko abonatu ez diren pertsonak ezarritako prezioa ordaindu, eta dagokion tiketa eskuratu behar dute.
- d) Segurtasunagatik 8 urtetik beherako hurrek, adinez nagusi den pertsona batekin egon behar dute.
- e) Instalazio honetako arauak igerileku estalirako dauden berberak dira, buruz salto egiteko debekuen kasuan izan ezik; azkenekoan, horretarako adierazitako lekuak egongo dira.
- f) Kanpoko igerileku eta guneetan egon daitekeen pertsona kopurua honako hau da:
 - Ontzi handian: 330 pertsona
 - Instalazioetan, orotara: 700 pertsona
- g) Nahiz eta abonatua izan, gehieneko edukiera gainditzen den momentuan, langileek debekatu ahalko dute bertara sartzea, norbait irten bitartean. Prozedura horrek ez du itzulketarako eskubiderik emango.
- h) Instalazioetan begirune handiz tratatu beharko dira gainerako erabiltzaileak.
- i) Igeriketa maila ona ez bada edota bere segurtasuna arriskuan jar dezakeen gaixotasunen bat badu (bihotzekoa, epilepsia...), soroslea jakinaren gainean jarri.
- j) Ezin da igerileku-zabaltzetatik korrika ibili edo ekintza arriskutsuetan jardun.
- k) Eskailerak dira igerilekura sartzeko eta ateratzeko leku logikoak.
- l) Gune berdean ezin da baloian, pilotan, paletan, ur-puxiketan edo antzeko jolasetan aritu; izan ere, gainerako erabiltzaileei enbarazua eta instalazioen mantentze orokorrari kalte eragin baitiezaiekete.
- m) Hamakak eta etzaulkiak sartzeko ez da onartzen.
- n) Ekaitzagatik eta hala gomendatutako kasuetan itxi egingo dira igerilekuak; tximista arriskuak dauden kasuetan, batez ere.
- ñ) Belar-eremutik eta kantineko terrazatik at, debekatua dago telefono mugikorrek eta bestelako gailu elektronikoak erabiltzea, elektrokuziorik eta kutsadurarik ez izateko.

- o) Haurren Babeserako 1/1996ko Lege Organikoaren arabera, debekatua dago adin txikikoei argazkiak atera edo grabatzea tutore edo gurasoen baimenik gabe. Betiere, kontuan hartu beharko da inguruan jendea dagoela, argazkiak edo bideoak egiterakoan.

VII. TITULUA. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

29. artikulua. Zehatzeko araubidea

- a) Instalazioak erabiltzeko Udalak ezarritako baldintzak ez badira betetzen, zehapenak ezarri ahal izango ditu, araudi honetan aurreikusitakoarekin bat. Nolanahi ere, zehapena izango da Udalak erabiliko duen azken neurria, bere funtsezko helburua kirol jarduera ezartzea eta garatzea baita.
- b) Instalazioetako langileek behar bezalako portaera ez duten pertsonak edo identifikatzeari uko egiten diotenak ohartarazteko eta instalazioetatik kanporarazteko ahalmena dute, eta hori gertatzen denean instalazioan dagoen Udaleko arduradun gorenari jakinaraziko diote.
- c) Instalazioen eta bertako ekipamenduaren eta Udalaren materialaren erabileraren ondorioz, ustekabean gertatu litezkeen kalte pertsonalak ezin izango zaizkio Udalari egotzi; haien arduradunen (baleude) erruz edo arduragabekeriaz gertatzen denean edo instalazioen edo materialaren egoera txarraren ondoriozkoa denean izan ezik.
- d) Bateragarriak dira zigorrak ezartzea eta instalazioetan eragindako kalteengatik kalteordainak eskatzea.
- e) Hutsegiteak mailakatzean, kontuan hartuko dira berrerortzea, asmoa eta instalazio publikoei eragindako kalteen intentsitatea.
- f) Oiartzungo Udaleko Alkateak, edo delegazioz bera ordeztzen duen organoak, izango du dagozkion zehapenak jartzeko eskumena, Kirol Zerbitzuko zuzendariak hala eskatuta.
- j) Espedienteak izapidetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioen ahalmen zehatzailea arautzen duen araudian ezarritakoa hartuko da aintzat.

30. artikulua. Arau-hauesteen mailakatzea.

- a) Hutsegite **oso larritzat** joko dira:

- Instalazioetan, Udalaren edo beste erabiltzaile batzuen ondasunak lapurtzea.
- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan 600 eurotik goragoko kalterik eragitea fede txarrez nahiz axolagabekeriaz.
- Beste erabiltzaile batzuekiko edo Udalaren langileekiko begirune falta larria, erasoak, mehatxuak, eskandaluak eta pertsonen ohorearen aurkako erasoak.
- 3 hutsegite larriak berriro egitea.

b) Hutsegite **larritzat** joko dira

- Kirol-instalazioetako edo sarreretako desordena publikoak, jokabidea oso larritzat jotzen ez denean.
- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan 240 eta 600 euro bitarteko balioko kalteak eragitea, fede txarrez nahiz axolagabekeriaz.
- Beste erabiltzaileekin eta langileekin begirunerik gabe jokatzeari, iraintzearen eta ohituren eta usadioen kontrako jarrerak izatea.
- Instalazioetan iruzur eginda sartzea.
- Araudi higieniko-sanitarioa ez betetzea.
- 3 hutsegite arinetan berrerortzea.

c) Hutsegite **arintzat** joko dira:

- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan 240 eurotik beherako kalteak eragitea, fede txarrez nahiz axolagabekeriaz.
- Langileen oharrak ez aintzat hartzea, edo gainerako erabiltzaileekin jarrera oker samarra izatea.

31. artikulua. Zigorren mailakatzeari.

a) Lokaletan, instalazioetan edo materialetan eragindako kalteak ordaindu egin behar dira.

b) Arau-hauste oso larriak direnean, abonatu izaera kenduko zaio, eta Udalaren edozein instalazio erabiltzeko debekua jasoko du. Debekua bi urtetik gehienez lau urte arteko izan daiteke.

c) Arau-hauste larriak direnean, abonatu izaera kendu, eta Udalaren edozein instalazio erabiltzeko debekua jasoko du. Debekua hilabete batetik bi urte arteko izan daiteke.

d) Hutsegite arinen eraginez, abonatu izateari uztea eta/edo Udalaren instalazioak erabiltzea debekatuko zaio, gehienez ere, hilabete batez.

e) Egindako kalteen zenbatekoak bost urtez behin eguneratuko dira.

VIII. TITULUA. LANGILE TEKNIKOAK

32. artikulua. Teknikariak.

- a) Instalazioetako erabiltzaileei behar bezalako zerbitzua eskaintzeko adina teknikari egongo dira.
- k) Kirol departamentuko burua da bertan ematen diren zerbitzuen jardunaren eta bertako instalazioen arduradun gorena.
- l) Kirol programazioaren eta ikastaro eta jardueretan erabili beharreko metodologiaren arduradun teknikoak egongo dira, eta behar bezalako ikasketa-titulazioa eduki beharko dute.
- m) Kiroletako begiraleek euren zereginak behar bezala garatzeko behar besteko lanbidegaitasuna dutela egiaztatzen duen titulazio espezifikoa eduki behar dute.

AZKEN XEDAPENAK

Zerbitzu jakin batzuen erabilera beste artikuluko osagarri eta hedatuago batzuk egiteko motibo izan daiteke, erabiltzaileek hobeto ulertzeko.

Erregelamendu honetan aipatzen ez diren kasuak, administrazioak interpretatu eta ebatziko ditu.

Araudi hau Udalak onartuko du hasieran eta, hala badagokio, iragarkien oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du. Jendaurrean erakusteko eta alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea iragandakoan, egonez gero alegaziorik haiek erabaki eta gero, oso-osorik argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, indarrean sartu baino lehen.

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 lanegunetara sartuko da indarrean.

Erregelamendu honi egin dakizkiokeen aldaketak modu egokian emango dira argitara, ahalik eta gehien ezagutarazteko.

Araudi hau argitaratu egingo da, eta doan banatuko zaie eskatzen duten erabiltzaileei eta abonatuiei.

I. ERANSKINA: ELORSOROKO ROKODROMOA/BOULDERRA ERABILTZEKO ARAUAK

I. kapitulua.- Arau orokorrak.

1. artikulua.

Araudi honen xedea Oíartzungo Elorsoro Udal Kiroldegiko rokodromo/boulderra erabiltzeko baldintzak arautzea da.

2. artikulua.

Rokodromo/boulderra eskalada egiteko diseinaturiko kirol-instalazioa da, eta kirol-jarduera horretarako baino ezin izango da erabili.

3. artikulua.

Eskalada ez dago arriskuetatik libre, eta prestakuntza fisiko eta tekniko espezifikoak behar dira eskaladan jarduteko. Ondorioz, rokodromo/boulderra erabiltzeak, arrisku horiek borondatez bere gain hartzea dakarkio erabiltzaileari.

4. artikulua.

Oíartzungo Udalak ez ditu bere gain hartuko rokodromo/boulderra gaizki erabiltzeagatik erabiltzaileek paira ditzaketen kalteak, edo erabiltzaileen prestakuntza fisiko eta teknikorik ezagatik eragindakoak. Instalazioen egoera txarraren ondoriozko kalteak baino ez ditu bere gain hartuko.

5. artikulua.

Instalazioa erreserbatzeak edo erabiltzeak arau hauek onartzea dakar:

- Pertsonen edo ondasunen eragindako edozein kalteren erantzukizuna kaltea eragin duen pertsona edo erakundearena izango da soilik.
- Ezin da jan, alkoholik edan ezta kristalezko objekturik sartu instalakuntzetan. Erretzea debekatuta dago 28/2005 ko Abenduaren 28ko legediari jarraiki.
- Animaliak sartzea debekatuta dago.
- Kirol elkarte edo asoziazioek, kirol instalazioetan edo eta inguruetan publizitatea edo kartelak jartzeko Kiro Sailaren berariazko baimena beharko dute aurretiaz.
- Debekatuta dago biolentzia adiera ematen duten pankarta, sinbolo edo bestelakoak sartzea eta agertzea.
- Orokorki ez da filmatzea, grabatzea edo argazkiak ateratzea baimentzen Udalaren aurretiazko baimena gabe.
- Portaera bandalikoek edo araudi hau urratzeak dagokien zigorra eragingo dute, eta zigorra banako erantzuleari nahiz taldeari ezarriko zaio. Horrez gain, eragindako kalteen ondorioz sortutako gastuak ere ordaindu beharko dituzte.

II. kapitulua. - Bertara sartzea.

6. artikulua.

Rokodromo/boulderrera sartzeko, abonatu izatea ala ezarritako sarrera-prezioak ordaintzea.

Euskadiko federazio-lizentzietarako indarrean dauden estaldurak hartzen dituen asegurua edukitzea gomendatzen da.

7. artikulua

Rokodromo/boulderra erabiltzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.

16 urtera bitarteko neska-mutikoek ere erabili ahal izango dute, baina aita, ama, legezko tutorea edo irakaslearekin joan beharko dute, eta hark ere Rokodromo/boulderra erabiltzeko gaitasuna eduki behar du.

8. artikulua.

Rokodromo/boulderra erabili baino lehen kirol instalazioetako harreran identifikazio-txartela erakutsi behar da, eta instalazioa behar bezala erabiliko dela ziurtatzeko idazki bat sinatu behar da. Jardueraren arriskuak nork bere gain hartzen ditu, eta Udala erabat libre dago instalazioaren egoera txarrak eragindakoak ez diren beste edozein kalteren erantzukizunetik.

9. artikulua.

Instalazioak behar bezala ez erabiltzeak Udalak onartuta daukan zehapen-araubidea aplikatzea ekarriko du.

III. kapitulua. - Segurtasuna eta materiala.

10. artikulua.

Rokodromoa bi lagunek erabiliko dute gutxienez, batek bestea segurtatzeko. Bermerik gabe banaka erabiltzeko leku bakarra beheko aldea izango da, marra gorria gainditu gabe.

Boulder eremua bakarka erabili ahal izango da.

11. artikulua.

Gutiz debekatuta dago presak lekuz aldatzea eta are gutxiago instalazioaren egitura manipulatzeko.

12. artikulua.

Gutziz debekatuta dago Boulderraren egitura higatu edo eta hondatuko luken materialik sartzea .

13. artikulua.

Eskalatzeko oinetakoak edo katu-oinak erabili behar dira derrigorrez.

14. artikulua.

Magnesio bolak edo alkohola eta magnesio nahasketa erabili ahalko da, inoiz ez magnesio hautsa.

15. artikulua.

Esparruaren ezaugarriak kontuan izanik, eta erabiltzaileen segurtasun neurriei arreta eginez, gehienez 20 pertsona sartu ahal izango dira.

IV. kapitulua. - Portaera.

16. artikulua.

Rokodromo/boulderraren eremuan, une horretan eskalatzen ari direnak baino ezin dira egon. Eta era berean abonatuak direnak edo sarrera ordaindu dutenak.

17. artikulua.

Rokodromoaren eta Boulder erabiltzaileak kiroldegiko aldageletan jantzi eta erantziko dira, inoiz ez kantxan eta kantxaren inguruetan. Poltsak eta motxilak takiletan gorde behar dira. Materiala garraiatzeko erabiltzen direnak baino ezin izango dira sartu.

18. artikulua.

Hormako elementuak ezin dira mugitu (presak aldatzea, markajeak...)

19. artikulua.

Topatzen den edozein egoera arraroren berri emango zaie instalazioko langileei: presak mugitu direla, aseguak apurtu direla, portaera arraroak, etab.

20. artikulua.

Erabiltzen ari ez den biderik ezin izango da gorde.

21. artikulua.

Udalak beretzat gordetzen du rokodromo/boulderra osorik edo zati bat kontrolak eta ikastaroak egiteko erreserbatzeko eskubidea. Hala denean, ahalik eta aurrerapen handienarekin emango da horren berri.

22. artikulua.



Instalazioko langileek araudia betetzen ez duen erabiltzailea ohartaraz dezakete eta rokodromo/Boulder aretotik kanporatu.



OIARTZUNGO
UDALA

Done Eztebe Plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – www.oiartzun.eus

EUSKAL HERRIA

